

SOZIOLOGIAKO ARIKETAK

1.GAIA. ZER DA SOZIOLOGIA?

1.Zer da soziologia? Jarri soziologiak aztertzen dituen gaien hiru adibide

Soziologia gizakien gizarte bizitzaren azterketa zientifikoa da. Errealitate jakin bat nolakoa den eta zergatik den horrelakoa aztertzen du. Hau da, nola bizi garen eta zergatik bizi garen horrela aztertzen du soziologiak. Garrantzitsua da jakitea gizakia ez duela modu indibidualean aztertzen, bere izaera soziala ikertzen du. Horrez gain, gizakiaren ingurune soziala, harremanak, erakundeak... aztertuko ditu, baita hauek gizakia nola baldintzatzen duten.

Gai hauek aztertu ditzake adibidez:

- Unibertsitateak nola eragiten dien ikasleei
- Dogromenpekotasuna duten pertsonak
- Familia batek dituen arazoak

2.Sozologia zientzia da?

Bai, soziologia gizarte-zientzia da. Izan ere, ikerketak burutzeko datuak biltzen ditu metodologia zientifiko baten bidez. Horrez gain, objetiboa izaten saiatzen da azterketa sistematiko zehatzak eginez.

3.Sozilogian “objektibotasuna” posible da? Garrantzitsua da? Zergatik?

Soziologoak objektiboak izaten saiatzen dira baina hauek aztergaiaren parte dira, gizarteko kide baitira. Horrez gain, gizartea aldakorra da baita ere. Egoera honen aurrean soziologiaren lana zaildu egiten da eta objetibotasuna galdu egin daiteke. Hau ekiditeko distantzia batetik aztertu behar dira gauzak. Aurreiritziak, balioak, ... alde batera uztea ere beharrezkoa da, horiek subjektiboak baitira. Objektiboa izatea garrantzitsua da, hau egin ezean ez baikara soziologian ari, iritziak ematen besterik ez gara ari.

4.Jarri azterketa soziologikoaren adibide bat

Inkesta adibide moduan erabil daiteke. Esate baterako eskola baten umeak oso agresiboki jokatzeko badute inkesta bat egin diezaiekete agresibitate horren arrazoiak zein diren ulertu ahal izateko.

5.Zer da “irudimen soziologikoa”?

Irudimen soziologikoa gauzak irudikatzean datza. Gizarte errealitatea aztertzeko beharrezkoa da hau. Irudimen soziologikoa munduak nola funtzionatzen duen ulertzen laguntzen du. Beraz, irudimen soziologikoa gizarteari lagundu egiten dio munduan gertatzen ari dena, eta haiei gertatzen zaiena ulertzen.

6.Nola eragiten du gizarte aldaketak gizartearen ideia berrietan? Jarri adibide bat

Gizarte aldaketak gizakion ideietan eragiten du etengabe. Adibidez teknologia berrien garapenak aldaketa bat eragin du gizartean Gaur egun, gizarteak barneratuta dauka ezin dugula teknologiarik gabe bizi baina duela ez urte asko hau ez zen horrela. Garai hortako

gizartean ez zeuden mugikorrak, ordenagailuak,... eta beraz, ez zituzten guk gaur egun ditugun ideia berberak.

7. Gizarte aldaketak gertatzen direnean, aurrez gizakiak aldaketa hori aurreikusi, pentsatu edo antolatu duelako gertatzen dira?

Aldaketa batzuk aurreikusi edo antolatu daitezke, adibidez aurretik aipatutako teknologiaren garapenak eragindakoa. Beste batzuk berriz, ezin dira antolatu, esate baterako krisi ekonomikoak eragindako langabezia.

8. Zeintzuk dira soziologiaren “abantailak”? Eta arazoak?

Ikuspegi soziologikoak hainbat abantaila ditu:

- Ikuspegi soziologikoa pentsatzeko era baten bihurtzen da (kontzientzia forma)
- Bizitzaren limiteak eta aukerak ezagutzen laguntzen digu.
- Gizartean parte hartzeko, interbenitzeko, aukera ematen du.
- Gizaki aniztasunaz eta sufrimenduaz jabetzen laguntzen du.

Hala ere, ikuspegi soziologikoak baditu desabantaila batzuk:

- Etengabe aldatzen ari den mundu bat aztertzen du
- Soziologoak haien ikergaiaren zati dira eta honek lana zailtzen du
- Jakintza soziologikoak gizartearen parte izaten bukatzen du.

9. Zer nolako eragina du TALDEAK pertsonengan? (Jarri adibide bat)

Taldeak eragin handia izaten du pertsonarengan. Izan ere, taldeak bere eginkizuna nola betetzen duenaren arabera gizabanakoak portaera bat edo beste gauzatzen du. Esate baterako familiak babes-afektiboa eta heziketa ematen duten eginkizun moduan. Babes-afektibo handiagoa jasotzen duten umeek segurtasun gehiago daukate. Adibide honen bidez ikus daiteke taldeak eragina duela pertsonengan.

10. Zertan datza soziologiaren garrantzia praktikan? (zertarako balio du?)

Soziologiak praktikan gizarteko hainbat arazo konpontzeko balio du. Arazo horiek konpontzeko arrazoiak ezagutzea ezinbesteko da eta hortaz, gizakiaren portaera aztertzeaz soziologia arduratzen da. Horrez gain, ohitura, kultura... ulertzen laguntzen du.

2.GAIA- HASTAPENAK ETA BILAKAERA HISTORIKOA

1-Nola sortzen da soziologia? Zer eragin du Soziologiaren sorreran Frantziako iraultzak eta Industrial iraultzak?

Gizakiok giza portaera baldintzatzen duten arrazoiak ezagutzeko kuriosidadea izan dugu beti. Mendeetan zehar kontzeptu erlijioso eta mitoen bidez azaldu da hori baina XVIII. mendean gerotik soziologia jaio zen. Soziologiak analisi sistematiko eta objetiboa egiten du giza portaera eta gizartearen inguruan. Soziologiaren jaiotza bi gertaerak bideratu zuten: industriar iraultza eta frantziar iraultzak. Izan ere, frantziar iraultzaren bidez, antzinako erregimenari amaiera eman zitzaion eta honek gobernu eta gizarte egitura berri bat sortzea eragin zuen. Testuinguru hontan gizarte arrazionalki pentsatzen hasiko da eta aurrerakuntza zientifikoak emango dira. Bestalde, industria iraultzako produkzio sistemetan izandako aldaketek gizarte osoan izan zuten ohiartzuna eta zibilizazio berri bati ateak ireki zizkion, non arrazionalismoa izango den nagusi.

2-Zer da Klasea? Zer da klase kontzientzia?

Klasea produkzio bitartekoen ondorioz sortzen den gizarte estraktoa da. Bi klase bereiztu daitezke, burgesia (bitartekoen jabeak) eta langileak. Langile masa horiek talde kontzientak sortzen dituzte, produkziobideen jabeekin izan daitezkeen zentzugabekeriak agerian utziz. Kontzientzia hartuta klaseak errebelatu egite dira eta honela gizarte aldaketa gertatzen da.

3-Nola ematen da gizarte aldaketa Marxen ustez?

Marx-en ustetan gizarte aldaketen atzean arrazoi ekonomikoak daude, kapitalismoa hain zuzen ere. Kapitalismoa produkzio sistema berri baten agerpena eta garapena izan zen. Kapitalismoak aberastasun handia sortuko du baina hau ez da era orekatuan banatuta egongo. Ondorioz, kapitalismoak elkar lehiatzen dauden bi klase sozial ezberdin sortuko ditu: kapitalistak eta proletarioak. Hauen arteko harremana esplotazioan oinarriturikoa da, hori dela eta, harreman gatazkatsua izango dute.

4-Jarri ezazu Marxen “superstrukturaren” adibide bat gaur egun ematen dena zure iritziz

Burgesiak langilegoa zapaltzen du. Zapalkuntza ahalbidetzen duten taldeak daude, zapalkuntza hori instituzionalizatzen dutenak (gain-egitura). Adibidez Eskola. Xabierrek finantziatzen badu eskola eta berak inposatu zer erakutsi, bere interesen arabera eraikitzen da eskola hori. Zapalkuntza egoera aldatzeko, estruktura sozial guztiak aldatu behar dira, desagerrarazi, eta ez burgesia bakarrik.

5-Zer da positibismoa?

Soziologia zientzia positiboa da eta beraz gatazkaren ikerketarako metodo zientifiko erabili beharra dauka, fisikak edo kimikak mundu fisikoa ezagutzeko erabiltzen zutena bezain zehatza. Ikerketa zientifikoa aplikatuz errealitatea ezagutu daiteke, honela aurrerabidea lortzeko.

Soziologiaren behaketan, konparaketan eta esperimendazioan jatorria duten datuetan oinarrituz giza ezagutza sor daiteke.

6-Esplikatu August Compteren “hiru etapen legea”

Auguste Comte-k dio gizakia mundua ulertzen saiatu dela beti, mundua ulertzeko hiru etapatik igaro behar dela defendatzen zuen.

1-Etapa teologikoa. Izak edo indarrei joz azaltzen dira fenomenoak (espiritu eta jainkoak)

2-Etapa metafisikoa. Azalpen ustezkoak ematen dira gauzen elementu abstraktuei eta esentziei so eginda (natura)

3-Etapa positiboa. Giza ezagutza zientifikoak, behaketan oinarritutakoak, bere limiteak ezagutzen ditu. Fenomenoak behatzen ditu, beraien artean existitzen diren lotura erregularrak zehazten ditu, bai puntualak eta baita iraunkorrak ere. Horrez gai, etapa hau erlatiboa da eta lege unibertsalak formulatzen ditu errealitatea ezagutzeko.

Auguste Comte-k etapa hauek pertsonaren garapeneko etapekin alderatzen ditu. Bestalde, disziplina guztietan etapa batetik besterako bidea denbora berdinean egiten ez dela zehazten du.

7- Zer ezberdintasun dago “gizarte aldaketa” esplikatzeko garaian Marx eta Compteren artean?

Marx-ek gizarte aldaketa klase borrokaren ondorioa dela dio. Comte-ren ustez adaptazioaren bitartez aldatzen da gizartea.

2.GAIA-2.ZATIA

1-Zer da Ekintza Soziala Emile Durkheim-en esanetan?

Ekintza Soziala Durkheim-e usez gizabanakoarengan kanpo presioa eragin dezakeen ekiteko edozein modu da. Hau da, pertsonarengan kanpo hertsadura egiteko gai den pentsatu, sentitu eta egiteko edozein modu da, gizartean orokorra dena eta era berean bere kabuz ere existitzen dena. Ekintza sozialak korrante sozialak dira, gizartean gai politiko edo erlijiosoan inguruan iraupen luzea duten iritzi mugimenduak... Finkatuta dauden ideiak eta jokabideak dira beraz, guregandik independenteak direnak eta baldintzatzen gaituztenak.

2-Nola lortzen da gizarte baten solidaritza Durkheimen ustetan?

Gizabanakoak taldeetan integratzean lortzen duenean, eta hauek balore eta ohitura amankomun batzuek gidatzen direnean, orduan lortzen da solidaritza mantentzea. Gizarte-kohesioa lortzen denean, hau da, balio eta ohiturak amankomunean daudenean eta guztiok gauza berdintsuak ulertzen dituztenean.

3-Zer da elkartasun mekanikoa eta zer da elkartasun organiko Durkheim-en esanetan?

Elkartasun mekanikoa: Lanaren banaketa eskasa duten kultura tradizionaletan ematen den fenomeno da. Bertan gehiengoek lan, esperientzia, sineste... antzekoak dituzte. Egoeraren aurrean, elkarteak ohiko bizitza kuestionatzen duen edonor zigortze du. Ondorioz,

ezadostasun indibidualerako oso leku gutxi dago. Beraz, solidaritate mekanikoa kontsentsuan eta sinesteen antzekotasunean oinarritzen da.

Elkartasun organikoa: Hau berriz, lanaren banaketa eta gizarte diferentziazioa ematen den gizarte modernoetan ematen da. Gizartea batuta mantentzen dutenak, pertsonen arteko interdependentzia ekonomikoa eta besteren portazioen garrantziaren errekonozimendua da. Gizarte honetan jendeak bestekiko dependentzia du, besteek ematen dizkioten zerbitzuak behar ditu eta. Dependentzia harreman horrek eta elkarrekikotasun ekonomikoak sinesmen elkabanatuak ordezkatzeko dituzte kontsentsu sozialaren oinarri bezala.

4-Zer da ekintza soziala Max Weberren esanetan?

Ekintza Soziala ekintza zein abstentziara orientatutako giza portaera bat da.

5-Zeintzuk dira (explikatu) Weberrek bereizten dituen lau ekintza sozial motak?

Weberrek lau ekintza sozial mota bereizten ditu:

1 Helburuaren arabera arrazionala : Ekintzaren ezaugarri nagusia hau da: aktoreak argi definitzen du bere helburua eta hau lortzeko medioak konbinatzen ditu.

2 Balioen arabera arrazionala: Aktoreak arrazionalki jokatzen du arrisku guztiak onartzen dituenean, ez emaitza jakin bat lortzeko, baizik eta bere ohorearen ideia propioarekiko lehial izateko. Balioek azaltzen dute jokabidea. Adibidez adiskidetasun balioa, lagunak lagundu gaizki daudenean

3 Ekintza afektibo emozionala: aktorearen kontzientzia eta humorearen arabera baldintzatua dagoen ekintza da

4 Ekintza tradizionala: ohiturari jarraituz era batera edo bestera jokatzea

6- Zer da funtzionalismoa? Adierazi ideia nagusia eta jarri adibide bat.

Funtzionalismoaren arabera gizartea elkarrekin estabilitatea eta solidaritatea bermatzeko, funtzionatzen duen zati ezberdinen batura osatzen duen sistema konplexua da. Horrela, soziologiak, gizartearen zati hauetako bakoitzaren artean dauden harremanak eta gizarteak osotasun bezala betetzen duena aztertu beharko du.

Hau da, funtzionalismoaren arabera gizartean gizaki bakoitzak funtzio bat du.

ADB. Giza gorputza. Buruak ez badu bere funtzioa ondo betetzen erotu egiten gara. Gizartean berdin gertatzen da. Gizartean elkarbizitza mantentzeko bakoitzak bere funtzioa egoki bete beharko du.

7-Zein da Gatazkaren teoriaren ezaugarri nagusia? Adierazi ideia nagusia eta jarri adibide bat.

Talde dominatzaile eta gutxien daukaten artean tentsio sozialak daude. Bakoitzak bere interes propioa dute.

Gizarte estruktura bakoitzak interes batzuk ditu beraz, kontrajarriak direnak.

8-Zer da interakzionismo sinbolikoa? Adierazi ideia nagusia eta jarri adibide bat.

Lenguaiak eta bere esanahiak kezkak sortzen ditu. Lenguaiak egin gaitu autokonsziente, gure indibidualismoaren jakitun. Gure eguneko bizitzan harremanak izaten ditugu eta lenguaiaren bidez (sinboloak, hizkuntza...) gizarte errealitatea aztertu dezakegu.

ADB. Xabik elaiari gaizki begiratzeko badiu, komunikazioa sortzen du horrek. Xabi+Elaia hasarre, gizarte errealitatea

3.GAIA- KULTURA

1-Zer da kultura?

Kultura ohitura, ezagutza, objektu material eta portaeren multzoa da. Gizarte bateko ideiak, balioak eta norbanako talde baten tresnak biltzen ditu kulturak. Horrez gain, kultura transmititu egiten da belaunaldiz belaunaldia eta egunerokoan gure kultura zein den adierazten dugu interakzioen bidez.

2. Zer dira “unibertsal kulturalak”?

”Unibertsal kulturalak” gizarte guztiek komunean dituzten jokabide eta sinesmenak dira. Esate baterako, gizarte guztiek gure oinarritzko giza beharrak asetzeko janaria, babeslekua... behar dugu. Hala ere, unibertsalak diren arren, kultura bakoitzak ezberdin adierazten ditu (sukaldea, hileta-ekintza...). Adierazteko erak denboraren poderioz aldatzen joaten dira.

3.Zer nolako eragina izan du globalizazioak gure inguruko kulturen?

Globalizazioa mundu osoan ematen den gobernu politika, kultura, mugimendu sozial eta finantza merkatuen integrazioa da, merkataritza eta ideien elkartruke bidez gauzatzen dena. Horregatik, herrialde baten kanpoan gertatutakoak barnean gertatutakoak bezainbeste eragin dezake. Globalizazioak eragin zuzena izan du kulturen, komunikabideen aurrerapenen ondorioz. Izan ere, komunikabideen bidez, kultura askoren ezaugarriak hedatu egin dira beste gizarte batzuetara.

4-Zer dira, balioak, arauak eta sinboloak?

Balioak: Balioak kultura batean positiboak edo negatiboak kontsideratzen diren ideiak dira. Hauek moralki egokia zer den adierazten dute. Zehatzak (gurasoei adeitasuna) edo orokorrak (maitasuna) izan daitezke. Balioek gure jokabidean eragina dute eta oinarritzat hartzen ditugu besteen ekintzak epaitzeko.

Arauak: Gizarte batean ezarritako jokabide-erregelak dira. Formalak edo ez formalak izan daitezke. Arau formalak idatziak daude eta ez badira betetzen zigorrak ipintzen dira. Arau ez formalei dagokienez, ez daude idatzirik baina onarpen orokorra dute. Hauek, aldiz, ez dute zigorrik edo zigorra txikia izaten da. Bestalde, ohitura eta tradizioak ere arauen barruan sar daitezke. Ohiturak ongizaterako beharrezkoak dira eta herri baten printzipioak dira. Tradizioak berriz, ohiko jokabideak gidatzen dituen arauak dira, hala ere, ez betetzeak ez du garrantzi handirik.

Sinboloak: Ideiak eta balioak, hau da, kontzeptu bat, errepresentatzen dutenak dira.

5-Zergatik da garrantzitsua “Hizkuntza”? Kultura bat aztertzerako orduan “hizkuntza” aztertzea garrantzitsua da? Zergatik?

Hizkuntza garrantzitsua da, izan ere hitz eta sinboloen sistema abstrakto honen bidez kultura ulertu dezakegu. Beraz, kultura aztertu nahi badugu, hizkuntza aztertu beharko da, kultura baten lehentasunak aztertzen baititu. Bere baitan biltzen du gure errealitate guztia.

6-Zergatik da garrantzitsua “balioak” aztertzea gizartea aztertzeko?

Baloreak kulturaren arabera morala zer den azaltzen digutelako. Horrez gain, gizakiek hauen arabera jokatzeko dutenez balioak ezagutu beharko dira hauen jokabideak ulertzeko. Balioak gure jokabideak baldintzatzen baititu.

7-Zein ikuspegi dute kulturari buruz “funtzionalismoak” eta “gazkaren teorikoak”?

Funtzionalistak gizabanako edo talde bakoitzak bere funtzioa duela defendatzen du. Bakoitzak bere funtzioa ondo betetzen badu gizarteak egoki funtzionatuko du, bestela ez. Funtzionalistak kulturaren funtzioa aztertzen du. Kulturaren funtzioa hau da: gizartea egonkor mantentzea.

Gatazkaren teoriaren arabera, gizartea etengabe gatazkan dago. Borroka horretan daudenak kultura desberdina duten eta beraz haien balioen artean talka ematen da. Honen eraginez, kultura nagusiak kultura txikiak zapaltzen saiatzen dira, haien interesak babesteko, balioak, hain zuzen ere.

8-Zer da etnozentrismoa? Zure iritziz jarrera etnozentrismoak nagusitzen dira gure gizartean? Jarri adibideak

Etnozentrismoak norberaren kulturaren ikuspegitik bere kultura beste kulturak begiratzean datza. Egoera hoonetan, norberaren kultura eta bizitza estiloa beste kulturaren gainean ipintzen saiatzen da jarrera etnozentrikoa duenak.

Gure gizartean jarrera etnozentrismoak ohikoak dira. Adibideak:

- EH den norbaitek ez duenean errespetatzen marrokiarra den batek buruan zapia ipintzea.
- Behin eta berriz musulmanei txerria jatea bultzatzen zaienean

9-Irakurri duzun testuan oinarrituta azpikatzen zeintzuk diren “familiak” bizi izan dituen aldaketak globalizazioaren ondorioz

Familiak aldaketa ugari jasan ditu. Garai batean hasteko, bikoteak gurasoek osatzen zituzten eta beraz, ziren maitasunean oinarritzen. Gainera, ez zegoen ondo ikusita bakarrik egotea; batez ere emakumeen kasuan. Bestalde seme alabarik ez edukitzea ez zen oso oikoa. Izan ere, umeak ekonomiari dagokionez laguntza handia suposatzen zuten eta etxera dirua ekartzea zen haien egitekoa. Gaur egun, ordea, jendea ez da garai batean bezala gurasoek aukeraturiko pertsonarekin ezkontzen. Maitasunean, komunikazioan eta intimitatean oinarritutako bikoteak eratzen dira. Bestalde, sexuari dagokionez, ez da bakarrik erreproduktzioa bideratzen. Orain semeak ez dira lehen edukitzean ziren helburu berberarekin edukitzean, eta laguntza ekonomiko bat baino gastu bat suposatzen dute. Beraz, familia tradizionala pixkanaka galtzen joan da leku gehienetan.

4.GAIA-SOZIALIZAZIOA

1-Zer da Sozializazioa?

Sozializazioa babesgabeko haur bat pertsona kontzientziadun eta adimentsu, jaiotze lekuaren forma kulturalak erabilzeko gai, bihurtzen duen prozesua da. Hau da, sozializazioa gizarteratze prozesuan datza. Gizarteratzea beste pertsonekin interakzionatzen jakitea da, elkarrekin bizi ahal izateko. Sozializazioaren bitartez araua, balioak, esanahiak, .. bereganatzen dira eta honek mundua ulertzen laguntzen du.

2.Zeintzuk dira Sozializazioko erakunderik garrantzitsuenak? Azaldu zergatik diren garrantzitsuak

Sozializazioko erakunderik garrantzitsuenak familia, eskola, lagunak, komunikabideak... dira. Izan ere, hauek sozializazio prozesuan eragin handia dute. Haurrak jaiotzean familiarekin izaten du lehen kontatua, eskolaren bidez ezagutzak, balioak... bereganatzen dira....

3-Zer da lehen mailako sozializazioa eta zer da bigarren mailako sozializazioa?

Lehen mailako sozializazioa aurtzaroan gertatzen da eta ikastaldi kultural trinkoena da. Momentu honetan hizkuntza, portaerak, arauak... ikasten dira. Horrez gain, sozializazio maila honetan familia da eragile nagusia. Bigarren mailako sozializazioa haurtzaro eta nerabezaroaren ondoren gertatzen da eta familiak betetzen zuen papera eskolak, lagunek... hartzen dute.

4-Nola garatzen da Sozializazio prozesua Mead-en iritziz

Mead-en iritziz, sozializazio hiru etapen bidez ematen da.

1.- Prestakuntza etapa: haurrak ingurukoak imitatzen ditu, eta ikurren bidez (hitzak, keinuak eta objektuak) hasten da erlazionatzen. Etapa honetan haurra bere izaera garatzen hasten da.

2.- Jolasaren etapa: haurrak pertsonaren existentziaz jabetzen hasten dira eta beste pertsona horiek direla irudikatuko dute rol jolasen bidez (medikua, irakaslea...)

3.-Partiduaren etapa: besteak ulertzen hasten da eta bakarrik ez dagoela jabetzen da. Besteak, taldea, hartzen ditu kontuan jarduerak aurrera eramateko orduan. Haurrak besteengan eragina du eta besteek haurraren ere bai.

5-Funtzionalismoan oinarritutako ikuspegiaren arabera zeintzuk dira familiaren, eskolaren eta komunikabideen funtzioak eta egitekoak?

Ikuspegi funtzionalistaren arabera:

-Familiaren egitekoak ondorengoak dira: ugalketa bultzatzea, ahaiden babesa bermatzea; arau, balore eta kultura transmititzea, afektoa transmititzea...

-Eskolaren egitekoak hauek dira: ezagutza transmititzea eta heziketa ematea (funtzio nabarmenak). Hala ere, ezkutuko funtzio batzuk ere baditu, besteak beste: belaunaldi desberdinak harremanetan jartzea, kultura menperatzaileen trasmisioa kontrol soziala...

-Komunikabideen funtzioa: arau sozialak ezartzea, statusaren esleipena, kontsumoa sustatzea..

6- Gatazkaren teoriaren arabera zeintzuk dira familiaren, eskolaren eta komunikabideen funtzio eta egitekoak?

Gatazkaren teoriaren arabera funtzioak hauek dira;

-Komunikabiden funtzioa: talde txiki bati interesatzen zaion informazioa soilik zabaltzea, hau da, informazioa kontrolatzea eta ideologia menperatzailea babestea. Izan ere, komunikabideak zenbait talderen interes eta pribilegioak mantentzen laguntzen dute.

-Familia: Gizarte bateko botere eta abeastasun desberdinak islatzen dituzte. Horrez gain, unitate ekonomikoa da, injustizia soziala sustatzen duena. Azkenik, botere, jabetza eta iabazien belaunaldiz bellaunaldiko trasferentzia da.

-Eskola: Hezkuntza elitearen menperatze tresna da. Horrez gain, pertsonen arteko desberdintasunak azpimarratu eta zapaltzen dituzte. Laburbiduz, estatuko interesak hezkuntzan islatzen dira eta hauek ikasleei transmititzen zaizkie.

7-Zergatik da garrantzitsua Sozializazioa ulertzea Gizarte Laneko eta Gizarte Hezkuntzako pertsona batentzat?

Garrantzitsua da gizarte arazo asko sozializazioa behar bezala egin ez izanaren arrazoiak direlako. Beraz arazoaren jatorria zein den jakiteko sozializazioa ulertu egin behar da. Kontextua ulertu behar da, sozializazioa zein eratarik eman den.

8-Nola eragiten ari dira familian ematen ari diren aldaketak haurren Sozializazio prozesuan?

Familian aldaketak eman dira. Izan ere, emakumeak lan mundura sartu dira eta, ondorioz, umeei haien adineko lagunekin denbora gehiago igarotzen dute, haurtzaindegian adibidez. Beraz, berdinen arteko harremanak lehen baino garrantzitsuagoak dira sozializazioaren prozesuan.

Horrez gain, familia eredu berriak daude, non gurasoak homosexualak diren, kultura anitzekoak...

5.GAIA- GIZARTE EGITURA ETA GIZARTE ESTRATIFIKAZIOA

1.- Zer da gizarte estratifikazio sistema?

Gizarte estratifikazio sistema gizartean norbanako eta taldeen artean dauden desberdintasunak deskribatzeko erabiltzen den sistema da. Norbanako eta taldeak egitura mailakatua dute taldean.

Laburbilduz, gizartea gizarte harremanen bitartez sailkatzen da. Estratifikazioa eragin egiten du gure bizitzan, gehienbat gure jokabidean. Gizartea ulertzeko, gizartea sailkatu egiten da, interakzio edo harremanen bidez.

2-Adierazi zer diren talde, gizarte sare eta gizarte erakunde kontzeptuak.

Taldea: taldeak elkarrekin harremanetan jartzen diren pertsonak dira, arau, balio eta espektatiba berdinak dituzte hauek. Taldeek gizartea osatzen dute eta talde bakoitzak eginkizun bat du gizarteko egiturean. Horrez gain, gizakiok harrean sozialak gehienbat taldean gauzatzen ditugu, arau eta sanzioen eraginpean.

Gizarte erakunde: gizarte erakundeak oinarrizko behar sozialetan oinarrituriko konbizkio eta jokabideen eredu antolatuak dira. Komunikabideak, familia, osakidetza... horren adibide dira. Hauek aztertuz gizartearen egitura aztertu daiteke. Laburbilduz, gizarte beharrei erantzuteko erakundeak dira.

3-Zeintzuk dira estratifikazioaren elementu ezberdinak?

Estratifikazioaren elementuak hauek dira: Status-a, Rol Soziala, Taldea, gizarte sarea eta gizarte erakundea.

Status-a talde edo gizarte baten barnean sozialki definitutako egoera. Hau da, atxikitutako posizioa, arrazoi kulturalak, ekonomikoa... direla medio, status-aren arabera botere bat edo beste ematen da. Pertsona batek status bat baino gehiago izan ditzake.

Bi status mota bereiztu daitezke.

-Esleitutako eta estrukturatutako estatusa.

-Esleitutako estatusa- gizarte batek esleintze diona pertsonari, bere ezaugarriak kontuan izan gabe.

-Estrukturatutako estatusa. Norbanakoak ahaleginez lortzen duena

-Estatus nagusia. gainontzeko estatusak meneratzen eta izartean pertsona baten egoera orokorra mugatzen dituen da.

Rol Soziala. Pertsona batek jokatzeko duen papera da. Hau da, rol soziala egoera sozial edo status zehatza duen pertsonari buruzko irudipenmultzoa da. Rolari irudipen zehatz bat dagokio, baina jokabidea norbanakoaren arabera da. Besteek zuregandik espero dutenak zure papera betetzen lagunduko du.

Taldea: taldeak elkarrekin harremanetan jartzen diren pertsonak dira, arau, balio eta espektatiba berdinak dituzte hauek. Taldeek gizartea osatzen dute eta talde bakoitzak eginkizun bat du gizarteko egiturean. Horrez gain, gizakiok harrean sozialak gehienbat taldean gauzatzen ditugu, arau eta sanzioen eraginpean.

Gizarte erakunde: gizarte erakundeak oinarrizko behar sozialetan oinarrituriko konbizkio eta jokabideen eredu antolatua dira. Komunikabideak, familia, osakidetza... horren adibide dira. Hauek aztertuz gizartearen egitura aztertu daitezke. Laburbilduz, gizarte beharrei erantzuteko erakundeak dira.

Gizarte sarea. Guztiak gara talde ezberdinetakoak eta gure ezagunen bidez, testuinguru sozial anitzeko pertsonekin erlazionatu gaitzake. Lotura hauek gizarte sare gisa ezagutzen ditugu, pertsona bat beste pertsonekin, eta hauen bidez, zeharka, beste pertsonekin, lotzen gaituen harreman eraikuntza.

4-Zein ezaugarri dituzte industria aurreko gizarteak?

Industria aurreko gizarteak

-Gizarte ehiztari biltzailea:

- Teknologia minimoa
- Lanaren banaketa eskasa
- Ezberdintasuna estatus esleituetan oinarritzen dira
- Familiak garrantzi handia

-Gizarte hortikolak

- Gizakiek landatu
- Ez dira hain nomadak
- Teknologia mugatua, egurrezko tresnak erabili

-Nekazal gizarteak:

- gizaki eta animalien inda fisikoan oinarritu
- Gizarte hortikolan baina definituago gizarte rolak
- Janari exzedenta momentuan sortu ahal izateko aukera ematen dute, datoren generazioai utzi ahal izateko.

5-Zer da gizarte mugikortasuna?Eta zerk baldintzatzen du?

Mugikortasun soziala deritza talde edo norbanakoen egoera sozioekonomiko ezberdinen artean duten mugimenduari. Hau ekonomiak eta posizio sozialak baldintzatzen du. Beste posizioa aldatzea.

6-Zehaztu zer diren: esklabutza, kasta, estatusa eta klasea.

Esklabutza: norbanako batzuk beste batzuen jabe diren muturreko ezberdintasun era da. Kasu honetan gizaki batzuk beste batzuen jabe dira. Eskabluek jabetzaren legezko baldintzak gizarte ezberdinetan esanguratsuki aldatu dira. Gaur egun legez kontrakoa da.

Kasta sistema; Estatus pertsonala bizitza osorako esleitzen den sistema soziala da. Kastetan antolatutako gizartetan mailak itxiak dira; ezin da estatusa aldatu .

LA OLA

1.- Filmaren hasieran ikasleek autokrazia ikasgaiaren ematen dute izena. Bertan diktaduraz mintzatzen hasten dira eta ondorengo galdera planteatzen du irakasleak: posible izango litzateke gaur egun diktadura bat bereganatzea? Galderari ezezkoa erantzuten diote eta irakasleak kontrakoa demostratu nahian proiektu bat abiarazten du. Beraz, filmeko gai nagusia diktadura edo autokrazia da. Helburua gure pentsamendua, ideologia.. zein manipulablea den demostratzea izango da.

2.- Arau desberdinak ezartzen ditu irakasleak, disziplina ezartzeko eta denak manipulatuak izateko; hau da, uniformetasuna mantentzeko.

-”Jauna” (señor) erabiliko dute irakasleari referentzia egiteko

-Hitz egiteko baimena eskatuko dute eta baimena edukiz gero, zutitu egingo dira.

-Denak berdin jantziko dira, galtza bakero eta alkandora txuriarekin.

-Ideologia bat sortuko dute

-Lider bat egongo da, kasu honetan, irakaslea.

-Olatuaren agurra egingo dute

Arau hauek errealitate berri baten sorrera suposatzen dute, non indibidualtasuna anulatu egiten den-

3.- Ohitura, jokabide... berak dituzten kultura bat sortzen da. Guztiz uniformeak, hau da, banakoen arteko desberdintasunik gabea. Izan ere, denek aurretik aipatutako arauak jarri izaten dituzte.

4.- Taldeak eragin zuzena du bakoitzaren jokabideak. Aipatu bezala denek berdina egiten dute “LA OLA” taldeko partaide izaten hasten direnean. Haien indibidualtasuna galdu eta talde interesen arabera jokabideak bultzatzen dituzte. Hasiera batean batzuk gelakideak iraintzen zituzten adibidez, baina proiektuan zehar talde interesagatik bata bestea defendatzen dute. Bestalde, batzuk taldeetik aldentzen dira.

5.- Sutsuen jarraitzen dioten ikasleen ezaugarrietako batzuk hauek dira:

-Ez dira inoiz talde baten partaide sentitu

-Familia edo lagunaren laguntzarik ez dute

-Besteekiko desberdinak sentitzen ziren “LA OLA” baino lehen

-Inork ez du haienganako interesik

-Inseguruak dira, ez dute konfiantzarik haien buruarengan

6.- Irakasle edo ikasleei eskutik joaten zaie esperimendua, hasieran ez dira konturatzen benetako diktadura batean sartu direla. Irakasleari dagokionez, liderra bihurtzen da eta denek eredutzat dute. Film amaieran sortutako eragozpenen ondorioz atxiloturik amaitzen du. Ikasleek, ordera, liderraren miresmena bilatu nahian haien jokabideak aldatzen dituzte, adibidez bandalismo kasua. Beste batzuk, berriz, inkonszienteki agresiboak bihurtzen dira. Film amaieran ikasle batek zauriturik amaitzen du eta beste batek bere buruaz beste egiten du. Beraz, argi dago haien nortasuna guztiz aldatzen dela, diktadurak segurtasuna ematen baitie.

7.- Proiektu honekin ados ez daudenak baztertuak eta gutxietxiak izango dira. Zenbaitetan ezingo dituzte egin besteek egin nahi dituzten gauzak, ez baitira baimenduak izango. Liderrak marginatu egiten ditu eta besteei mezu berdina bidaltzen die. Nortasun handiena duten pertsonak dira proiektu honetatik alde egiten dutenak.